

SALAM



Negu Gorriak 1990-1996 talde baten historia

Hau ez da gezurra

100 ginen

Lehenengo adreilua jaso ondoren, niri zuzenduta ez egon arren, kas-koan kanka! sentitu nuen nire poze-rako. "Itzul gaitezen ekintzara", "ekin diezaiogun lanari", eta horre-lako esaldi beroak zetozkidan buru-ra. Zuri idazten dizut, izango den primizia mundiala jakin dezazun.

Nahiz eta irratian oso denbora gu-txi eraman, kazetaritzaren sindro-meak kutsatu nau dagoeneko, esklusiben kalenturak alegia. Eta iazko urritik hona isilpean prestatu dugun txanpligua, gure zutabe honetan le-hertzea erabaki dut.

Lagun batzuren artean musika tal-de berria egiteari ekin diogu azken hilabeteetan. Jadanik 13 kanta pres-taturik ditugu martxoaren lehenen-go hamabostaldian grabatzeko, eta gure lehenengo diska izango dena osatzeko.

Zuzenean ez jotzea pentsatu dugu (besteek bestelako zereginak dituz-telako eta nire osasunak ez lukeela-ko jasango), baina orain arte egin dugun bezala, eraso-sorpresa izango da gure arma, eta beste motako eki-taldiak antolatuko ditugu.

Entsaiatzen dugun zuloak, Holan-dan ezagututako gotorlekua gogora-razten dit, Bigarren Gerra Mundia-lean naziengandik ihes egitearren eraikitakoa. Baina duela hiru hilabe-te Montoia etorri zitzaizkidan **Mikel Laboari** egingo zaion omenaldi-dis-koan parte hartzea eskainiz, zera pentsatu nuen, "tapagailua hemen daukat": *Permin eta pipermin gor-riak*. Baina taldearen benetako ize-na ere, zutaberako gordetzen nuen, eta **Mikel Laboaren** "Gaberako ater-bea" kantaren bertsioa egin dugu-nez, *Negu Gorriak* jarri diogu taldea-ri.

Ilusioa egingo dizulakoan, agur-tzen zaitut, baina kontuz, negu go-rria dator eta.

FERMIN MUGURUZA

Kronologia txiki honetan taldearen une garrantzitsuenak laburbiltzen saiatu gara. Ikusiko duzuen bezala, 7 urte hauetan izugarritzko ibilbidea osatu dute. "Salam, Agur" taldearen bizi-tzaren B.S.O.-a izan bada, *Negu Gorriak* bere osotasunean jende asko eta mugimendu asko-ren erreferentzia izan da. Aurrerantzean izango den bezala.

1990, abiapuntua

Guztia, publikoki bederen, Argiako "Hau ez da gezurra" zutabea hasi zen. Bapatean komunikabide guztiek albiste honen oihartzuna jaso zuten. Proiektua berria, dena den, jada martxan zegoen. Euskal Herriko musikagintzari ipurdiko galanta emago zion taldearen lehen urratsa izan zen hau.

"Xerokee", Mikel Laboaren omenezko diskoan, *Negu Gorriak* izenpean aurkeztu zen espe-rimentu berriaren lehen emaitza. Fermin eta Iñigo Muguruza eta Kaki Arkarazoren bideak Kortaturen azken boladan uztartu ziren. "Gaberako aterbea" izan zen aukeratutako bertsioa eta hor-tik atera zuten ere taldearen izena. Handik gutxira, bakarkako lehen diskoa plazaratu zuten. Taldearen musika oinarriak finkatu baziren ere, proiektua oraindik osatzeke zegoen.

"Radio Rahim" bideo-klipa izan zen lan honen lehen emaitza atseginenetako bat. Baina *Negu Gorriak*en ekitaldi ikusgarriena heltzeaz zegoen oraindik. Ordurarte urtero bezala, Herrera de la Mancharen egiten zen euskal preso politikoen aldeko ekitaldira hurbildu ziren autobusean. Han, 10.000 pertsonen aurrean *Negu Gorriak*ek lehen emanaldia eskeini zuen. Era honetan zuzenean jotzeari ekin zioten. Ordurako partaide berri gehitu zitzaizen, Mikel Anestesia. Txima luzedun mutil argal hura trash musikaren ildotik zetorren, Estigian ere aritu baitzen. Konbinaketa harritzeko modu-koa zirudien. Baina gerora beste estilo batzu ondo menderatzen zituela ederki asko erakutsi zigun Mikelek. Handik gutxira Mikel BAP! iritsi zen, boskotea osatuaz.

1991, Baieztapena

Urte honetan egun euskal musika alternatiboaren erreferentzi nagusia jaio zen: Esan Ozenki Records. Zigiluaren lehen erreferentzia "Gure Jarrera" izan zen, askorentzat, taldearen lanik boro-bilena. Aurrekoa baino soinu kalitate hobea izateaz gain, maila handiko kantuak biltzen ditu, eta guztion mirespena sortu zuten sampling-ak. Euskal musika munduan estilo bat asmatzen ari ziren. Taldearen disko salduena izan omen zen. Lan hau urte berean Italia, Japon eta Frantzia editatua izan zen.

Bestetik NG Brigaden fenomenoak gorantz egin zuen. Herri askotan osatu ziren, gehienetan kontrainformazioaren bozgoragailu moduan.

Irailan "Power To The People bira"-ri hasiera eman zioten. Euskal Herria, Noruega, Italia, Suitza, Austria, Alemania, Ingalaterra, Gales, Irlanda, Belgika, Frantzia eta Espainiako hainbat leku-tan aritu ziren zuzenean. Esan behar da atzerrian hazia ereinda zegoela Kortaturen garaitik.

Zuzeneko izan da batip bat, taldearen aurpegi ikusgarrienetako bat. Indartsuak, zuzenak, bortitzak... Bapatean guztion ikusmina piztu zuten. Errekonozimendua ordea, ordurarte euskal musikari arrotz egiten zitzaion komunikabide batetik iritsi zen. 1991an "Zuzeneko Talde Onena" zela deliberatu zuen "Radio Nacional-Radio 3" irratia. Eta urte amaieran, "Gora Herria" izeneko maxia kaleratu zuten. Bertan maxiari izena ematen dion kantua bertsioa jaso zen, Manu Chao eta Joseba Tapiaren partaidetzaz lagunduta.

1992: 91+1

Urte sabatikoa izan zen diskografi mailan. Baina 91ko biraren arrakasta ez zen ezerezean gelditu, eta zuzenean jotzeko dei ugari jaso zituzten. Proposamenei ezin ezetzik eman eta taldeak "91+1 Bira" antolatzea erabaki zuen. Italia, Suitza, Mexiko eta Washington DC-ren aritu ziren. Bira honi eser kontaktu ugari egin ahal izan zituzten: Esatebaterako Suitzako Rec-Rec zigiluaren bitartez, Europa osoan NGren lanak editatzeko proposamena izan zuten.

Bira honetako irudiek eta Iruñeako kontzertuan lortutakoekin taldearen bigarren bideoa osatu zen. Lehenak, Herrera de la Manchako matxan bizitakoa jaso zuen.

1993, Topera

"Borreroak baditu milaka aurpegi" lanarekin bi urteko atseden diskografikoari amaiera eman zioten. Lan luzea izanik ere, nire ustez taldearen lanik mardulena eta EHn egin den onenetakoa da. Lan honetan musika giro ezberdinak maisutasunez lotzea lortu zuten. Disko beltza, lehen entzunaldie-

AGUR

Salam, agur

Fermin MUGURUZA / Kantaria

NIRE TXANDA



Duela zazpi urte martxan jarri genuen proiektuaren berri emateko "Argia" n osatzen nuen «Hau ez da gezurra» zutabea hautatu bagenuen, amaieraren iragarpena «Nire Txanda»-ri egokitzea erabaki dugu. Hirukote bezala sortu genuen egitasmoa, laster boskote bihurtu eta handik gutxira kolektibo ireki baten motor bilakatu zen, non musika, hitz eta errealtatearekiko konpromezua, ahalik eta koherentzia handienarekin batzen saiatu baikin. Negu Gorriak taldearen independentziak autogestioaz funtzionatzea exijitzen zigenez gero, azpiegiturak sortu behar genituela ohartu ginen. «Itzul gaitezen ekintzara», «ekin diezaiogun lanari» eta horrelako aldarrikapen beroekin hasi zena, denboraren poderioz errotu eta sendotu egin da. Esan Ozenki disketxeak bosgarren urtemuga bete du dagoeneko, 23 talde ekoiztu dituelarik, ajitazio eta propagandarako eratu ziren NG brigadak autoantolatu eta egituratu dira, bidegabekeria salatzeke talde eraginkorak direla egiaztatuz, eremu artistiko guztiak erreaktibatzeke egin diren ahaleginekin batera topaguneak hedatu dira taldearen inguruan, non antzerkia, irudia, komikia, bideoa, zinea, olerkia, etabarrekoak kausitu baitira.

Rock internazionalari ere beste lagunekin batera ekin genion, ideien kontrabandoan aritzen garen mugalariok armaireak sareak eraikiz eta utopiarantz mugiarazten gaituen ideia zabalduz. Gaur, ordea, elur izoztuen artean pitzadurak eragiten dituen itsasontziaren brankatik mugitzeke ordua heldu dela erabaki dugu, tripulazioak okupatzen dituen beste tokietan iharduteko, gizakiak gizakiaren zama aroarekin bukatzeke eta inoren eta ezeren menpeko izan gabe bizitzeko indarrak ezin baitira inoiz desagertu, eradaltu baizik.

Taldearen aurkezpena disko batekin gauzatu bagenuen, zikloaren amaierari disko bat atxikitzen zaio, egun hauetan grabatzen ari garena. Geure bizitzaren B.S.O.ren 15 kantu bertsionatuz, "Salam, agur" izeneko lana kaleratuko dugu, zazpi urtez gure bizitza bete duen bandari adio esateko eta kaixo batez agurtzeko sortu eta sortuko diren proiektu berriak.

tan barneratzeko zaila. "Erori", "Itxoiten", "Bi Doberman Beltz", "Malcom X", "Chaquito",... NGek eskeinitako emaitzik oparoena.

Lan honi "Stop Hypocrisy Tour 1993" jarraitu zion, taldeak ordurarte egindako birarik luzeena. Finlandia, Belgika, Frantzia, Austria, Italia, Suitza, Alemania, Danimarka, Suedia, Holanda, Espainia eta Euskal Herria. 35 kontzertu gutxi gora behera, eta amaitzeko NG beste puntu gorenetako batera iritsi zen:

Bira amaitzeko, Amnistiaren aldeko Batzordeak Bilboko Erakustazokan antolatutako jaialdian emandako kontzertua. Guztira 9.000 pertsona bildu ziren, eta han izan ziren ere Mano Negraok.

1994, Trantsizioa

Urte honetan "Hipokrisiari Stop Hypocrisy Tour 1993" zuzeneko diskoa kaleratu zen. Bilbon eskeinitako kontzertua jasotzen da bertan. Zuzenean abestiak elkarlotzeko zuten trebezia argi eta garbi geratu zen grabaketa honetan. Urte honetako udaberrian El Salvadorren FMLNren aldeko hauteskunde kanpainan parte hartu zuten. Ez dezagun ahaztu NG sortu zenetik, elkartasun mugimendu batean bilakatu zela. Irailan Chile, Argentina, Uruguay eta Brasil aldera abiatu ziren Todos Tus Muertos taldeekin jotzeko. EHan ere kontzertu batzu egin zituzten, baita Frantziako Fontenay jaialdian Urban Dance Square taldearekin.

94a NGren azken txanparako zubia izan zen.

1995, Ideiaren zabaltzea

Maiatzan aurkeztu zuten Ideia Zabaldu diskoa. Bi urte ziren "Borreroak..." -estudioko azken lana-plazaratu zenetik. Jarraitzailegoa zai zuten. Eta hau izan koloretsuen artean disko koloretsuena dudarik gabe. Hitz Egin-en indarra, Hiri Gerrilaren Dantzaren mugimendu ikastaroa, Aizuren doinu atsegina, Ume Hilak kantuaren erritmoa,...

Ekaina eta uztailan EH eta Frantzia aritu ondoren, azken birari ekin zioten iraila hasieran. Bira honek bazuen elementu berri bat. Honakoan kazetari batek, Garbiñe Ubedak hain zuzen, biraren nondik norakoak liburu batean jasotzeko asmoz abiatu zen taldearekin batera. Urte honetako Durangoko azokan kaleratu zuten Susa argitaletxeok aipaturiko diskoa. Era honetan NGren inguruan biltzen ziren mugimenduak ezagutzeko parada izan genuen. Eta bidebatez bira bateko eguneroko bizitza erakutsi zigun liburuak.

"Ideia Zabaldu Tourrak". Erroma, Florentzia, Padua, Munich, Berlin, Kolonia, Zurich, Geneba, Dijon, Bartzelona, Madril, Pradejon, Getxo, Lakuntza, Zaragoza, Valentzia eta Vigo hiriak bisitatu zituen. Gira "Hitz Egin" jaialdi erraldoiarekin bukatu zen. Negu Gorriak Galindorekin duen aferan, Esan Ozenkiko talde guztiak bat egin zuten jaialdi honetan adierazpen askatasunaren alde. Banda Bassotik, Nacion Reixak, Mikel Markezek eta Anje Duhaldek ere jaialdian parte hartu zuten. Historikoa izan zen, hitz batean laburbiltzearen.

1996, Agurra

96a besteak beste, Neguren agurraren urtea bezala gogoratua izango da. Baina amaierararte ez dute atsedunik hartu. Urtarrilan "Ustelkeria" CDa aurkezten da, Hitz Egin! kanpainan lagundu zutenentzat opari moduan.

Martxoan Baionan aritu ziren Iparraldeko Piztu! elkarteak antolatutako jaialdi batean eta apirilaren 6an Zaldibiako Gazte Topagunean parte hartu zuten. Negu Gorriaren kontaktuei esker, Body Count taldea ekartzeko aukera izan zuten Jarraikoei. Kontzertu honen ondoren, Mexikora abiatu ziren kontzertu batzu eskeintzera. Chiapasoko altxatuekin ere egoteko aukera izan zuten. Biratxo honen amaieran Mikel Bap!! atxilotua izan zen. Espetxean egun batzu igaro ondoren kalera irten zen. EHra hasera batean iritsi ziren berriak kezkatzeko modukoak izan ziren, baina zorionez egun gertaera hura bitxikeri moduan gogoratzen dugu.

Eta irailan Bere bizitzako B.S.O. izenburua eraman behar zuen iraupen luzeko lana prestatzen hasi ziren. Grabazioa bukatzeaz zeudela, urriaren azken egunean Fermin Egin egunkarian "Agur, Salam" azken diska kaleratzearekin taldeak agur esaten zuela iragarri zuen.

Proiektu berriei agur esanez, agurtu dute Negu Gorriak. Kronologia honen 2. zatia beraz, hasi besterik ez da egin. Adi egon lagun!

SALAM X AGUR



Taldea estudioan zela test moduko hau helerazi genien fax bitartez. Topikoetatik aldendu asmoz, ohizko elkarrrizketa sahiestu nahi nuen. Azken finean, guztiz ezaguna da talde honen jarrera eta bilakaera. Diskoaz gain, ezer berririk ez. Baina erantzunen zai ginela egunkariaren bidez jaso genuen agurraren berria. Galdera asko bururatu zitzaizkigun orduan, baina berandu zen jada. Kuestionarioko galdera asko desfasatuta egon arren, berau oso-osorik argitaratzea erabaki dugu. Alde batetik formula bitxia iruditzen zaigulako, eta batez ere, erantzunak atseginez irakurriko dituzuela uste dugulako.

1- Bertsioez osaturiko diskoa grabatu berri duzue. Prestatu dituzuen bertsioez gain, aukeran, ze abesti bertsionatuko zenuke?

Fermin Muguruza: La Mala Vida (Mano Negra).

Mikel Bap!!: Rock for light (Bad Brains).

Kaki Arkarazo: Psycho Killer (Talking Heads).

Mikel Anestesia: Macarena (Los del Rio).

Iñigo Ripiau: Mexican Blood (Thin Lizzy)

2- Inoiz bertsionatuko ez zenukeen abestia.

Fermin Muguruza: Soldados del amor (Marta Sanchez).

Mikel Bap!!: Seré un pringao (Amistades Peligrosas).

Kaki Arkarazo: Mendan larrartean (Benito Lertxundi).

Mikel Anestesia: Caballo de batalla (Juan Pardo).

Iñigo Ripiau: Membrillorena...

ez dut titulua gogoan (Heroes del Silencio).

3- Joxe Ripiau eta Nacion Reixa proiektuak martxan jarri bezain pronto zurrumurru dexente zabaldu ziren. Garai hartan formulatu zen galdera errepikatuko dizuet: zenbat iraungo du Negu Gorriakek?

Fermin Muguruza: Betirako.

Mikel Bap!!: Betirako.

Kaki Arkarazo: Betirako.

Mikel Anestesia: 2.222.222 urte behintzat bai.

Iñigo Ripiau: Betirako.

4- Orain arte grabatu dituzuen kantu guztien artean hiru aukeratu.

Fermin Muguruza: Hitz egin, Ipurbegia, Ez dezagun sal.

Mikel Bap!!: Ez dezagun sal, Erori, Bakartia Hondarribian.

Kaki Arkarazo: Beste Kolpe bat, Erori,

Itxoiten (Zuzenean).

Mikel Anestesia: Zipaioen matxinada, Erori, Itxoiten, etab...

Iñigo Ripiau: Itxoiten, Nere baitan daude biak, Gora Herria.

5- Zein izan da NGen diskorik borobilena?

Fermin Muguruza: Ideia Zabaldu.

Mikel Bap!!: Borreroak Baditu Milaka Aurpegi.

Kaki Arkarazo: Gure Jarrera.

Mikel Anestesia: Ezin aukeratu bat. Hori aita bati nor den seme/alabarik politena galdetzea bezala da.

Iñigo Ripiau: Ideia Zabaldu.

6- Laister mundu mailan argitaratua izango da "Ideia zabaldu" diskoa. Zer geratzen zaio Negu Gorriak taldeari egiteko?

Fermin Muguruza: Galindoren afera irabazi.

Mikel Bap!!: Galindoren afera irabazi ondoren, bira bat. "NG, Geurea da Garaipena. Tour 2.022".

Kaki Arkarazo: Desegitea.

Mikel Anestesia: Oporraldiak.

Iñigo Ripiau: Galindoren afera irabazi eta gero kontzertu polit bat egitea Estrasburgon.

7- Bira batean armonia mantentzeko zer da ezinbestekoa zure ustez?


Fermin Muguruza: Ondo lo egitea.

Mikel Bap!!: Eguneroko txaloak, nahiz eta aurrean bakarrik 15 lagun egon.

Kaki Arkarazo: Aukerako lagunekin bidaiatzea.

Mikel Anestesia: Jan, ondo lo egin eta kontzertu onak egitea.

Iñigo Ripiau: Errespetu pittin-pittin bat.



8- Zergatik musikariek ez dituzte promozioak eta elkarriketak gustoko?

Fermin Muguruza: Menperatzen ez dugun eremu batean sartu arazten gaituzuelako.

Mikel Bap!!: Nahikoa lan izaten dugu diskoa prestatzen, eta agian gogorik ez duzu elkarriketarik eskeintzeko.

Kaki Arkarazo: Ez dut uste hori guztiz egia denik. Denbora problema izaten da gehiago. Nik gustokoak ditut.

Mikel Anestesia: Batzutan eskolako examinak gogorazten nautelako. Beste batzutan ondo pasatzen dut.

Iñigo Ripiau: Musikariak garelako, ez besterik. Gurea musika egitea delako.

9- Nori ukatuko zenioke elkarriketa bat?

Fermin Muguruza: Zaborra idazten dutenei.

Mikel Bap!!: Isabel Gemiori.

Kaki Arkarazo: Printzipioz inori ez, dena den herri honetan zenbaitek merezia luke.

Mikel Anestesia: Nieves Herreri.

Iñigo Ripiau: Errespetu pittin bat ez duen kazetariari.

10- Taldearen kontura, herri eta leku asko ezagutu dituzue. EH alde batera utzita, non biziko zinake gus-tora?

Fermin Muguruza: Parisen.

Mikel Bap!!: Bizitzeko, beste inon.

Kaki Arkarazo: Tijuanan.

Mikel Anestesia: Ez dut bilatu.

Iñigo Ripiau: Ia-ia edozein lekutan moldatuko nintzen.

11- Jotzeko leku edo areto bat.

Fermin Muguruza: Rote Fabrik (Zurich).

Mikel Bap!!: Fahrenheit (Paris).

Kaki Arkarazo: C.P.A. (Florentzia).

Mikel Anestesia: Kamioi baten gainean, epaitegiaren aurrean.

Iñigo Ripiau: Gasteizko gaztetxea.

12- Berriro gustora ikusiko zenukeen pelikula bat.

Fermin Muguruza: Las noches salvajes.

Mikel Bap!!: Cosas que nunca te dije.

Kaki Arkarazo: Ciudadano Kane.

Mikel Anestesia: El tren del infierno.

Iñigo Ripiau: Noche en la tierra.

13- Erosi duzun azken diskoa.

Fermin Muguruza: Münsterland.

Mikel Bap!!: Tower of Power.

Kaki Arkarazo: John Spencer Blues Explosionen azkena.

Mikel Anestesia: Ez naiz gogoratzen.

Iñigo Ripiau: Color Humanoren diskoa.

14- Zein taldeekin osatuko zenuke zure gustoko kon-tzertua?

Fermin Muguruza: NG, Mano Negra eta Urban Dance Squad-ekin.

Mikel Bap!!: Bere garaian Dead Kennedys eta Minor Threat taldeekin.

Kaki Arkarazo: John Spencer Blues Explosion eta eta Beastie Boys taldeekin.

Mikel Anestesia: Bap!! taldearekin.

Iñigo Ripiau: Joe Arroyo, Rubén Blades eta Joxe Ripiaurekin.

15- Zeinekin osatuko zenuke talde (paralelo) bat?

Fermin Muguruza: DUT taldearekin.

Mikel Bap!!: Eneko, Drake, Jomes, Javi Pez eta Xabier Montoiarekin.

Kaki Arkarazo: Osatzen ari naiz,...

Mikel Anestesia: Jimmy Hendrix, Keith Moon, Sid Vicious eta Janis Joplinekin.

Iñigo Ripiau: Mikel Bap!! repeatzen, Mikel Anestesia batherian, Kaki armonikan eta Fermin slide guitar batekin.

SALAM AGUR

**Negu gorriaren aurrean
iritzi bilduma**



Edurne Ormazabal, Euskadi Gazteako zuzendaria


Agur eta hurrengora arte!

Artikulu hau idazteko eskatu didatenean, denboran atzera egin eta Kortatuko kideek agur esan zuten unea etorri zait burura. Garai hartan, Katu Kale, ETBko saioa egiten genuenok, saio berezi bat eskeini genion larogeigarren hamarkadan euskal musikagintzan bide berriak zabaltzeko zuten taldeari. Oraindik ere gogoan dut, taldearen jarraitzaile amorratu ziren gazte tristetuengatik eskutitz eta dei ugari jaso genuela saio berezi hura eskertuz. Oraingoan ere ez da faltako antzekorik,

Negu Gorriak desagerpena dela eta. Ziur naiz.

Zazpi urte igaro dira, Muguruza anaiek Kaki Arkarazorekin batera, gaur agurtzen ari garen proiektu berri-zaile hura aurkeztu zutenetik. Urte hauetan Negu Gorriak taldeak euskal musikariengan izan duen islada izugarria izan dela esaten badut, ez dut ezer berririk esango. Baina gure herriko musikariengan izandako eragin musikala nabaria izan bada, are garrantzitsuagoa iruditzen zait euskal musikagintzarentzat, Negu Gorriak inguruan sortutako azpiegitura eta hark izandako eragina. Musikan, zein "musika negozioan", formula berritzaile eta ausartak erabiliz, euskal musikarekiko ezagutza eta errespetua hedatzen lagundu dute musikari handi hauek.

Ferminek dioenez "zikloa amaitu" omen da. Datorrena aurrekoa bezain emankorra izango deneko itxaropenean, agur eta hurrengora arte!




Anjel Valdes, Elkar disketxea.

Do the Right Thing

Bizitza kolapiratsu honetan, gauzarik zailenetako bat, momentu bakoitzean egin behar duzun horretan behar den garaian eta intentsitatean asmatzea izan ohi da. Negu Gorriak taldeak badu kalitate hori, bai ekintza burutzeko unean hala nola ekintza beraren indarraren proportzioan ere bete betean atinatu egin izan duelako, hau dena berezko etika eta estrategia egoki batez konbinatuz, giza-inguruaren aurrean eredu ia utopikoak errealitate bilakatuz; metodologian eredu, indarrean efektibo eta zuzen, ariman zintzo bezain itxaropentsu. Urte batzuetan zehar, beraiekin leku eta abentura garrantzitsu zen-

bait konpartitzeko zoria eduki dut (Esan Ozenki Records, Kortatu, NG, eszenatokiak, diskoetan kolaborazioak...) eta lehen unetik jarraitzaile sutsu izan ninduten. Haien jarrerak eraginda oraingo neure erizpide eta metodoaren oinarria beraiekin sustatu eta eraiki nituen; estiloan konfundiezinak dira, kolpe kolpe berrizaleak, zentzurik zabalenean iraultzaile, irudipen inpaktante eta nekagaitzaren bidez solidarioak eta, batez ere, gorriak. NG, egin ezazu behar duzuna: beste kolpe bat. Bihotz-bihotzez.



Jon Maia, bertsolaria

Armiarma sare erraldoia

Edozer juzgatzeko garaian, juzgatu behar duzuna kanpotik ez ezik barrutik ere ezagutzea komenigarria dela ikasi nuen aspaldi. Negu Gorriaki buruz hitz egi-tean, nire esperientzian oinarrituko naiz. Taldearekiko nire harremana Ferminen bidez hasi zen. Ferminen ausardia handia izan zuen nigan jarri zuen konfidantza jartzean, are gehiago, disko hark ("Gure Jarrera") taldearentzat zuen garrantzia kontutan hartuta. Ferminen ez ninduen ni ia ezagutu ere egi-ten, ni oso gaztetxoa nintzen eta bertsotaz ezer askorik ere ez zekien. Nik, nire hemezortzi urterekin 6 kantu idatzi nizkion, eta diskoan ere kantatu ahal izan

nuen. Horretan datza bere ausardia, taldeak "bere jarreran" beti erakutsi duena.

Lan egiteko era arduratsu eta zorrotz hori izan da taldearen beste ezaugarrietako bat, azkeneko osatu duten "Negu Gorriak armiarma sare erraldoia" da horren fruitu eta erakusle. Bertsotik, musika mota horrentzat horren egokia den estruktura, bizitasuna eta freskotasuna atera nahi zituen.

Niri ideia haiek islatzea zegokidan. Oso lan aberasgarria izan zen hori niretzat, zentzu guztietan. Inon grabatuta geratuko ziren nire lehenengo hitzak izan ziren haiek, eta zure hitzekin eginiko kantu bat entzuteak ematen duen satisfakzioa orduan sentitu nuen lehendabizikoz; bestalde gure "musikaren mun-dua" ezagutzeko bidea eman zidan. Bitarte honetan ezagutu ahal izan nituen beste taldekideak, Jone eta jende gehiago (Unai ez dut oraindik ezagutzen) eta nire esker ona besterik ezin diet adierazi, goraintziak bidaltzeaz gain. Bertsolari izateak eman didan esperientziarik eta fruiturik politenetakoa izan da hau, inoiz parte hartu dudana proiekturik interesgarri eta dimentsio handienetakoa izateaz aparte. Kanpotik begiratzen dutenen artetik, entzun ahal izan ditut kritika batzuk, betidanik. Proiektu osoaren estiloaren ausardiak, han-ditasunak eta berritasunak eragindakoak, nire ustez. Baina kritika horien aurrean utzi diguten herentziaren garrantzia eta kalitatea geratzen da, euskal kulturaren mesederako. Batetik, lanaren gaurkotasunari eta eraginari esker, euskararen normalizazioan eta zabalkundean pauso garrantzitsu bat gauzatu dute; bes-tetik mezu abertzale eta iraultzaile bat zabaltzeko munduko lau haizetara eta azkenik, edozein herri-tako jaietan dantzatzeko ditugun abesti on mordo bat utzi digute. Taldea desagertzeak ematen didan pena alde batera lagata, ziur nago pasa den Negu Gorri honek, udaberri berriak ekarriko dituela.



Garbiñe Ubeda, "I. Zabaltu Tour 95"

liburuaren egilea

Ni poztu egin naiz

Europar zehar eginiko biran nahikoa asebate nintzen arren, maiz entzuten dut oraindik ere "Ideia zabaltu" diskoa. Eta ez da NGko partaideen ezagutza pertsonala CD hari atxikitzen nuen arrazoia, baizik eta taldearen sorkuntza-lan hark plazaratu zuen sintonia, estiloa, kalitatea, beste kulturetara hurbil-tzeko modua. Losintxak losintxa, maila gorenera heldu ahal izango zuketan akaso, partaideek NGren bidea amaitutzat jo izan ez balute. Niri, ordea, irri-barrea eragin zidan berriak. Pintzak, Mikel Anestesiak, Iñigok, Kakik,

Ferminen eta boskotearen atzetik mugitzen diren gainerako dinamizatzaileek beti bezain ipurterre eta aktibo jarraitu nahi dutela bururatzen zait. Edota Esan Ozenkiren bidez beste hainbat talde hasiberriren bidea leuntzeko aparteko saioa egin nahiko dutela. Finean, dinosaurioen esparruan sartu gabe, urteotan gainditu dituzten pausoetatik harat jotzea erabaki dutela, auskalo zein formatan. Muga berriak urratzeko enpeinu horretan Negu Gorriak txikitxo bilakatu zaiela dirudi.

Sorpresa berriaren zain. Txundi gaitzazue.